

# Tronkalitatea Bizkaia, Aramaio eta Laudion, 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibila Legearen arabera<sup>1</sup>

JOSÉ MIGUEL GOROSTIZA VICENTE

Abokatua eta ZEA/AVD zuzendaritzakidea

Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Euskal Zuzenbide

Zibilari buruzko Batzordearen arduraduna

## 1. ONDORIO NAGUSIAK

Ponentzia honen izenburua honako hau da: Bizkaiko, Aramaio eta Laudioko Tronkalitatea, eta egingo dudan hausnarketarako alde zuzenbideko zenbait ondorio adierazi nahi ditut.

1.- Lehenik eta behin esan beharra dago, gaur egun Tronkalitatea ohitura bati jarraitzen dion lege batek arautzen du. Ohitura baten islada da lege hau, pertsonengan, familiengan eta gizartearengan guztiz errotuta dagoen ohitura bat, hain zuzen ere.

Familien ondarea babesteko eta mantentzeko zuzenduta dagoen balore eta printzipioak ordezkatzen ditu lege honek, onibarrak banatzea eta familiarengandik ateratzea ekidituz, eta ondasunen foru-komunikazio eta oinordearen hautatze askatasuna bermatuz.

2.- Bigarrenez, esan beharra dago 2015ean Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen erredakzioa, teknikoki asko hobetu dela, baita izaera, edukina eta eragina arautzeko sistematika ere, zabalduko dituen zenbait eragin gaurkotuz.

---

<sup>1</sup> Euskaraz eta Euskal Herriko zuzenbide zibilari buruzko jardunaldian aurkezturiko txostena (Bilbo, 2016/06/15)

Orain, ondasun tronkal guztiekiko edozein xedatze-egintza baliozkoa hartzen da. Hala nola, dohaineko egintzak, “inter vivos” edo “mortis causa” egiten direnak edota kostu bidezko egintzat, baldin eta senide tronkeroak inpugnatzen ez baditu.

Behin ezagututa ondare bat transmititu dela lehenespenez eskuratzeko eskubidea urratuz, aurkeztu ahal izango da deuseztagarritasun akzioa edota saka-eskubide forala, iraungitze data zehatz baten barruan.

3.- Hirugarren ondorioa bada, Tronkalitatearen etorkizuna, aplikape-nak markatuko duela. Baina honekin batera, etenik gabeko aldaketa prozesuan dagoen gizartearentzat, familiarentzat eta jabetzarentzat tronkalitateak suposatuko duen erabilgarritasunak, etorkizun hau markatuko duela ere bai.

Tronkalitatearen jaiotzak, praktika eta ohituren artean aplikatzen zen lurraldeetan eta gerora zenbait Foruetan jasota, giza harreman eta harreman ekonomiko zenbaitzuk sortu zituen, oraindik-orain islada dutenak gure Herriko paisai eta izaeran.

Honen adibideak, gaur egun enpresa familiarrek garatzen duten aktibitate ekonomikoan topatzen ditugu, baita lurrari, familiari eta ohiturei lotutako aktibitate ekonomikoen irautean ere.

## 2. ORAINA – 5/2015 LEGEA

Eusko Legebiltzarraren 5/2015 Legeak, 61. eta 87. arteko artikuluetan, Tronkalitatea arautzen du.

Lehenago, Legearen Zioen Azalpenak esaten digu:

Bizkaiko erakunderik esanguratsuena (Aramaio eta Laudio), zuzenbide pribatuari dagokionez, tronkalitatea da. Horren lortzea ere begien bistakoa da Nafarroan eta Lapurdiko ohituretan. Aldiz, Gipuzkoan eta Araban ez dago araututa, herrialde horiek inoiz ere ez baitzituzten euren

legeak idatzi. Bizkaian bilduta dago Foruan eta zabal garatuta 1992. urteko legean, lurralde hauentzat bakarrik, eta Kode Zibilaren zuzenbide ordezkatzaileraren eraginetik kanpo.

Hartara, berrikuntzarik irtenena da aspaldiko deuseztasun erabatekoa, tronkalitateetik kanpo diren arrotzen mesederako egindako ekintzetan, deuseztasun erlatibo edo deuseztagarritasun mugatu bihurtzen dela, Jabetza Erregistroan noiz inskribatu eta hurrengo lau urtetan egikaritu behar baita.

Saka-eskubidearen egikaritzeari dagokionez, ondasun tronkal bat arrotz bati besterentzen zaionean, testuak mugatu egiten du hori, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan badaude ondasun horiek. Eskubidea egikaritzeko moduak ere, bitarikoak proposatzen ditu testuak, bata, zuzenetik egitekoa eta bestea, iragarkien bidez, bi-biak notarioen fedepekoak, tronkaleko senideei deia egiteko.

Legearen beste ataletan ere Tronkalitatea agertzen da, adibidez, 8., 9. eta 10. artikuluetan, betiere ondasun tronkalen arloan indarrean dagoen lurraldetasun-printzipioari babesten, edo 144. eta 146. artikuluetan ondasunen komunikazioari buruzko araubidea desegitea eta adjudikatzearen erregelak, eta bukatzeko hilobien gaineko tronkalitate-eskubideak, seigarren xedapen iragankorrean.

Dena dela, Legearen II. Tituluan, Oinordetzak arautzen duena, Tronkalitatearen buruzko artikulua gehienak biltzen dira, izenburu esanguratsu baten azpian eta, agian, ez lagungarriena: Testamentua egiteko askatasunari jarritako mugapenak.

Lehenengo Azpiatal batean, 61. eta 71. artikuluen artean, Xedapen Orokorrak agertzen dira.

1.2.- Hasteko, 62. artikuluan definizio bat bilatzen da:

*Bizkaiko lur lauan, eta Arabako Aramaio eta Laudioko udal-mugarteetan, onibarren gaineko jabetza tronkala da. Tronkalitateak ondarearen familia-izaera babesten du.*

1.3.- Jarraian, onibarrak edo tronkalekoak (Tronkalitatearen osagai errealak) zer diren aurkitzen dugu hurrengo artikuluetan: 61, 62-2º eta 3º, 64, 65-1º, 71 eta seigarren xedapen iragankorra. Azpimarratuko dugu:

*61. artikulua.- Tronkalitatearen lurralde-aplikazioa.*

*1.- Tronkalitatearen ondoreetarako, onibarrak dira, bakarrik, Bizkaiko infantzonatu edo lur lauan nahiz Arabako Aramaio eta Audioko udalerrietan kokaturikoak.*

*64. artikulua.- Onibarrak.*

*1.- Tronkalitatearen ondoreetarako, onibarrak dira jabetza eta gainerako gozatzeko eskubide errealak, baldin eta lurzoruaren gainekoak badira, edo bertan eraiki, landatu eta eraiten den guztiaren gainekoak.*

1.4.- Bestalde, senide tronkeroak (Tronkalitatearen osagai pertsonala) 62-2º, 63-2º eta 3º, 66, 67 eta 68 artikuluetan agertzen dira eta beraien arteko lehenespenak hurrengo artikuluan irakur dezakegu:

*66. artikulua.- Senide tronkeroak eta beraien arteko lehenespenak.*

*Senide tronkeroak dira, odolkidetasunez zein adopzio bidez:*

*1.- Beheranzko zuzeneko lerroan, seme-alabak eta gainerako ondorengoak.*

*2.- Goranzko zuzeneko lerroan, onibarra zein lerrotatik etorri eta lerro horretako aurrekoak, eskuraketa-titulua edozein izanik ere.*

*3.- Alboko lerroan, laugarren gradurainoko albokoak, betiere onibarra zein lerrotatik etorri eta lerro horretan.*

1.5.- Bere aldetik, 63. artikuluan eskatzen digu biak batera gauzatzeko behar direla eta elkarrekin eman erlazio juridiko-tronkala gauzatzeko.

*63. artikulua.- Ondasun tronkalak eta senidetasun tronkala.*

*1.- Senidetasun tronkala beti zehazten da, Bizkaiko infantzonatuan edo lur lauan nahiz Arabako Aramaio eta Audioko udal-mugarteetan kokaturiko onibarrari begira.*

*2.- Onibarrak tronkalak dira, senide tronkeroak daudenean bakarrik.*

1.6.- Baina, noiz sortzen da Tronkalitatea? Legeak adierazten duena da:

68. artikulua.-

1.- Tronkalitatea sortzen da, Bizkaiko toki-auzotasun zibila edo Aramaio eta Laudio udal-mugarteetako toki-auzotasun zibila duen pertsonak onibarra eskuratzeko duen unetik; eta, une horretatik aurrera, tronkalitatea hedatzen zaie pertsona horren ondorengo guztiei, lege honen 63.3 artikuluan ezarritakoa salbu.

1.7.- Eta noiz azkentzen?:

68. artikulua.- 3.- Familian tronkalitatea azkentzen da, titularra hiltzean ez badago senide tronkerorik.

Tronkalitatea azkentzen da, halaber, titularrak Bizkaiko toki-auzotasun zibila galtzen duen unean ez badago senide tronkerorik zuzeneko lerroan, ezta al-boko lerroko bigarren eta hirugarren graduetan ere.

1.8.- Berritasunen artean, aurkitzen ditugu Tronkalitatearen lehenengo ondoreak, hain zuzen ere, artikulua honetan:

69. artikulua.- Tronkalitatearen ondoreak.

1.- Ondasun tronkalak xedatzeko egintzak *inter vivos* eta doan burutzen badira kanpokoan mesederako edo ondasunok eskuratzeko lehenespeneko lerroan ez dauden senideen mesederako, senide tronkerorik egintza horiek deuseztatu ahal izango dituzte, lau urteko epean, legitimazioa dutenek xedatze-egintzaren berri izan dutenetik eta, edozein kasutan ere, Jabetza Erregistroan inskribatu direnetik.

2.- Ondasun tronkalak xedatzeko egintzak *mortis causa* burutzen badira kanpokoan mesederako edo lehenespeneko lerroan ez dauden senideen mesederako, egintzok baliozkoak izango dira; hala ere, senide tronkerorik testamentu-nahiz oinordetza-klausula aurkaratu ahal izango dute, lau urteko epean, legitimazioa dutenek xedatze-egintzaren berri izan dutenetik eta, edozein kasutan ere, Jabetza Erregistroan inskribatu direnetik.

Lehenago, 62. artikuluan arautzen zuen nola *ondasun tronkalen jabeak horiek xedatu ahal ditu, bakarrik, senide tronkerorik eskubideak errespetatuz.*

Xedapen Orokorrak ikusi ondoren, Legeak eskaintzen digu, Bigarren Azpiatalean, Lehenespenez Eskuratzeko Eskubide Tronkalak eta foru-

saka eskubidearen egikaritzea ondasun tronkal bat arrotz bati besterentzen zaionean.

Lehen ikusi dugu deuseztatzeko akzioa, 69. artikuluan.

Orain, 72. eta 73. artikuluetan, nortzuk diren senide-tronkeroak, nortzuk dute hobespena, lehenespen-hurrenkera, lerroan eta graduari.

74. eta 75. artikulua, eskubidearen mugapena hirigintzako sailkapenaren arabera eta finka bat baino gehiago besterentzen denean.

Eta 76. artikuluetatik aurrera, erregulatzen dute prozedura eskubide tronkal hauek gauzatzeko, besterentzearen aurreko deia, notarioaren aurretik agerraldia, onibarren balorazioa eta abar.

Bereziki, azpimarratu behar dugu 83. artikulua, Foru-Saka arautzen duena, modu honetan:

*83. artikulua.– Foru-saka.*

*1.– Onibarra besterentzen bada aurretiaz deia egin gabe, 72.2 artikuluan zerrendaturiko edozein tronkerok foru-saka akzioa egikari dezake, besterentzearen deuseztasuna eta finkaren adjudikazioa eskatuz, azken hori finkaren beraren balorazio zuzenaren arabera. (...)*

Azpiatal honek bukatzen dut babesten eskubide tronkalak berme berdinekin prozedura eta egoera berezi desberdinetan sartzen direnean: hipoteka-betearazpen kasuetan, premiamendu-prozeduretan, trukaketa-kasuetan eta abar.

3. IRAGANA: orain arte, zer izan da?, zer esan dute? eta zein jurisprudentzia eta erabakiak eman dute epaitegietan?

Bizkaiko Erdi Aroan, ondasuna osatzen zuten higigarriak eta onibarrak. Foruak higiezin hitza ez zuen erabiltzen eta onibarrak bezala onartzen zuten. Beti familia barruan jarraitu behar ziren baina ondasun berriak erosten zituztenean Tronkalitatetik kanpo geratzen ziren, besterentzeko askatasuna. Garai horietan, Bizkaiko ohiturak seniparteak ez zuten onartzen.

Baina 1452. Foru Zaharrean berrikuntza bat onartu zuten eta onibarra guztiak handik aurrera tronkalak izango dira eta seme-alabak eta gainerako ondorengoak tronkero bakarrak:

*Capítulo 112. De los bienes raíces comprados o adquiridos en vida (que sean habidos por bienes raíces, no por muebles)*

*Capítulo 114. Que no se haga donación á extraño de raíz habiendo herederos y descendientes.*

Gero, 1526. Foru Berriak lau bostenekoaren senipartea onartzen du Tronkalitatearekin batera eta, modu horretan, besterentzeko askatasunari murrizketa handia hasten da.

*Ley 16 del Título 20. Que la rayz comprada sea de la mesma condición que ha heredado.*

*Otrosi, dixeron: Que habían por Fuero, y establecían por Ley, que toda rayz, que...*

*Ley 18 del Título 20. A quien, y de que bienes se puede hacer donación, o manda.*

*Otrosi, dixeron: Que habían de Fuero, uso y costumbre, y establecían por Ley, que...*

Garai hartatik, urte luzeak izan dira berrikuntzarik gabe legearen aldetik eta, bitartean, jabeak egunero aplikatzen zituzten ohiturak eta Foruak agintzen zuena eskribauen dokumentazioan ikusi dugun bezala. Aurrerago, doktrina juridikoaren iritzia aurkitzen dugu. Eta gutxienez, iritsi zaigunen artean azpimarratu nahi nuke hurrengoak.

1898. urtean, Luis Chalbaud y Errazquinek Tronkalitatearen defentsan ikerketa sakon bat egin zuen *La Troncalidad en el Fuero de Bizcaya* liburuan eta definizio moduan esaten zuen:

17. orrialdean: *La troncalidad es una ligadura que se establece entre la propiedad raíz y la familia que la posee para que nunca salga de ella; un conjunto de disposiciones legales que regulan las transmisiones intervivos y mortiscausa de bienes inmuebles con el objeto de impedir que estos bienes pasen a manos de per-*

*sonas pertenecientes a familia distinta de la del anterior propietario. Este principio troncal es el que da forma a esta propiedad en cierto modo familiar; aquí se establece el asiento de la familia en la casería; este es el lazo estable y permanente de la casa, es en el orden de la propiedad lo que el apellido en el de la distinción social. La troncalidad vincula los bienes en la familia estableciendo un interés solidario, creando una especie de comunidad.*

1965. urtean, Adrián Celaya Ibarak bere doktore-tesia argitaratu zuen *Vizcaya y su Fuero Civil: Los conflictos de leyes en Vizcaya* izenburuarekin eta han azpimarratzen zuen:

*...la idea de troncalidad en Vizcaya, en la familia vizcaína, es mucho más amplia y no consiste en una simple regla aplicable a un supuesto más o menos excepcional. Es algo más esencial, un principio que informa todo el Derecho de propiedad... y estoy convencido de que el legado de la troncalidad puede ser el origen de concepciones solidarias de la propiedad y de la herencia... propiedad local y vecinal... propiedad cooperativa...*

Bere aldetik, Javier Caño Moreno irakasleak uztailaren 1eko 3/1992 Legean, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzkoan, egiteko lanean parte hartu zuen eta bere izaera juridikoa eta definizio bat ematea lortu zuten 17. artikuluan:

*La propiedad de los bienes raíces es troncal. A través de la troncalidad se protege el carácter familiar del patrimonio.*

Caño Moreno jaunaren ustez, Tronkalitatea lehen ohitura bat zen eta gero Foruan lege bezala onartu eta mantendu zuten. Orain, bere baloreak eta izaera eguneratu behar izan dira, beti gizartearen nahia eta beharrak kontuan hartuz .

Idea horretan, 3/1992. Legearen Zioen Azalpenak azpimarratzen zuen:

*Bizkaiko Foru-Zuzenbidearen berezitasunik nabarmenena tronkalekotasuna sakon sustraiturik egotea da, horretan ez dago zalantzarik. Hori testamentuzko oinordetzan zein testamentugabekoan ikusten da, «inter vivos» edo «mortis cau-*

*sa» ekintzetan, ordainbidezkoak nahiz dohainezkoak izan. Sustraitze hori gure inguruko herrietan, Auñamendialdeko forudun herrialdeak ere barruan direla, ezagutzen dena baino askoz sakonagoa da.*

Hori dela eta, tronkalekotasunaren erakundeak I. Liburuaren II. Idazpurua hartzen du, tronkalekotasuna eta bere osagaiak zehaztuz. Aldi berean, bere eraginik ertzekoenak argitzeko, eta behar bada mugatzeko, ahaleginak egiten dira, erakunde hau gaur egungo bizimoduaren beharrezanez egokituz.

Jurisprudentziaren aldetik, Euskal Zuzenbide Zibilaren interpretazioa eta integrazioa argitzen du eta, adibide gisa, azpimarratu nahi nuke bi le-roan:

2.1.- Auzitegi Gorenetik jaso duguna:

- STS de 02.03.1861, Onibarra besterentzen aurretiaz deia egin gabe gaiari buruz... *que las leyes del Fuero de Vizcaya, teniendo por troncales los bienes raíces sitos en aquella provincia de propiedad particular, exigen varias formalidades para venderlos, con el fin de que llegando a noticia de los parientes del poseedor puedan concurrir a comprarlos, declarando nula la venta que se haga de ellos a extraños sin haberse llenado aquellas...*

- STS de 22.12.1962, ondasun tronkala eta ondasunen foru komunikazioari buruz... *la troncalidad es la vinculación de la raíz vizcaína a la familia vizcaína.*

- STS de 11.03.2010, legezko edo testamentu gabeko oinordetza, ondasun tronkalarekin, lurralde-aplikaziorako eremua eta auzotasunari buruz,

*...que el bien inmueble objeto del proceso tiene carácter troncal desde el punto de vista objetivo; (ii) la sucesión del causante se rige por el Derecho común, pero los bienes del patrimonio hereditario de carácter troncal siguen afectos a los derechos y deberes derivados de la troncalidad, dado que el causante tenía originariamente vecindad civil vizcaína y estos derechos y deberes no se extinguieron por la pérdida de dicha vecindad;*

2.2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aldetik:

- STSJ.PV de 11.09.1992, E.J. 3º, Sr. Satrústegui Martínez, ondasun tronkala, senide tronkeroak eta ondasun familiarrean oinabarrak iraunari buruz

*La troncalidad, como institución básica del derecho foral vizcaíno, es de naturaleza compleja y está informando toda la estructura de éste, debiendo ser entendida e interpretada en la conjunción armónica de sus diversas instituciones, y en su manifestación más directa consiste en la adscripción de determinados bienes raíces a la familia, para la que han recibido la condición de troncales, siendo esa vinculación no un fin en sí misma, sino un medio encaminado a obtener la mayor estabilidad económica de la familia troncal, por lo que la conservación del bien raíz en el patrimonio familiar, a través de su titular individual, no constituye una imposición legal para el pariente tronquero, sino una libre determinación de éste y, por tanto, no es dable exigir al tronquero, cuando adquiere la raíz troncal, el propósito de conservarla en su patrimonio, pudiendo transmitirla en el tiempo y ocasión que mejor le convenga, siempre que, al verificarlo, guarde y respete los derechos de otros tronqueros*

- STSJ.PV de 21.01.2005, E.J. 2º, Sr. Saiz Fernández, besterentzako salmenta deuseztasuna eta saka-foralaren akzioa egikari buruz

*... la falta de claridad del llamamiento o sus aspectos dudosos no pueden redundar en perjuicio del tronquero que ostenta el derecho preferente de adquisición, pues aquí, trayendo el criterio que se sigue en materia retractual, también ha de afirmarse que el conocimiento que la pretendida venta ha de tener el tronquero, por intermedio del llamamiento, a los efectos de sopesar el ejercicio de su derecho de adquisición preferente, ha de ser completo, claro, preciso y sin aspectos dudosos,...*

4. GEROA eta ETORKIZUNA: ...eta bihar zer?

Nire iritzian, gaurtik aurrera egin behar duguna da:

- Indarrean dagoena ezagutu eta aplikatu

- Interpretatu eta integratu, dagoena hobetuz
- Alde positiboak aitortu eta berrikuntzak proposatu

BALOREAK azpimarratu:

1.- Tronkalitateak printzipio eta balore positiboak ditu, guztiz errotuta daudenak pertsonengan, familiengan eta, orokorrean, gizartean, eta Herri honen izaeran eragin dutenak, izaera hori sortzeko lagundu dutenak, alegia.

2.- Gaur egun, familiak, errealitate bat izaten jarraitzen du gure gizartean: sortu, gauzatu, iraundu, garatu eta aurrera jarraitzen duena...

3.- Familia ondarea familiaren orubea da, bere izaera eta garapenaren oinarria.

4.- Familiak zeregin sozial bat betetzen du, baita zeregin kolektibo zein familiarra ere, norbanakotasuna eta interes pertsonala gainditzen duena.

5.- Familiak bere iraupenerako babesa behar du eta, zeregin sozial, kolektibo eta familiar hori betetzea eragozten dioten xedatze-egintzat burutzen direnean, bermea behar du.

ZALANTZAK eztabaidatu:

- Hau guztia al da lege inposaketa bat, gaur egungo gizartearen beharren kontra doana, zein Askatasun Zibilaren Euskal Zuzenbide Zibilaren printzipioen kontra doana?
- Gaur egun, xedapen askatasun erabatekoari, bizirik edo heriotzarengatik, mugak edota debekuak jartzeak ba al du zentzurik?
- Familiak utzi al dio gaur egungo gizartean erreferente izateari?
- Familiak ez du jada behar bere ondarea antolatu eta babestea?
- Eta pertsonak ez badute arduratsu jokatzeko haien ondarearekin, zein arduratuko da adin txikikoekin, adimen urrikoekin edota atso-agureekin?

PROPOSAMENAK egin:

1.- Familia ondarea sartu beharko litzateke Euskal Zuzenbide Zibilaren oinarriko printzipioen artean, Askatasun Zibilarekin eta Pertsonenganako Begirunearekin batera, Euskera hizkuntza ofizial moduan sartu beharko litzatekeen bezala.

2.- Tronkalitatearen arautze berri eta hobe batek, lehenik eta behin beharko luke familiaren kontzeptuaren azterketa berri bat, gaur egungo gizarte txiki eta desegonkorraren ikuspuntutik, senide tronkeroengan eragiten duena modu zuzen batean.

3.- Aldi berean, familia ondarearen kontzeptuaren berrazterketa bat behar da, modu zuzenean ondare tronkaleai edota onibarrei eragiten diena.

4.- Instituzio juridiko honen araudi egokiago baten bila, aztertu beharko genuke Tronkalitate misto baten sorrera, bi tronkalitate mota desberdinak, alegia, Herrialde guztietan planteatzen direnak:

- bat osorik, landa eremuari eta abere-nekazaritza ustiatuei lotuta
- maila baxuagoko beste bat, osatugabea, nolabait esateko, hiriguneei lotuta.

5.- Berriz ere, Euskal Zuzenbideari batasuna emateak eta legedi europarrei hurbiltzeak, batasuna eta aniztasunaren arteko oreka oinarritzat duenak, hain zuzen ere, talka egiten du xedapen muga guztiak – senipartetik edota tronkalitateetik datozenak – desagertu beharko liratekeela uste dutenen iritziarekin.

Nire ustez, Tronkalitatea mantentzea positiboa da, betetzen duen zeregina soziala kontuan hartuta, ondareak batuta mantentzea ahalbidetuz eta familia jarduera ekonomikoa bultzatuz, familia enpresen bidez, kooperatiben bidez eta abar. Gainera, elkarte era onberagoak bilatzea eta lortzea ahalbidetzen du ere bai.

Bukatzeko, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortzen du Legeak, bere Lehenengo Xedapen Gehigarria: kontsulta-organo izango da eta bere misioa Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzea.

Horretarako, honako hauek egingo ditu: ikertu, ebaluatu, proposamenak eztabaidatu eta aholkularitza egin Eusko Legebiltzarrarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat, baita arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatu ere.

## 5. LANTZEKO MATERIALAK

*La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios breves, texto de la Ley, antecedentes legislativos, y formulario notarial*, URRUTIA BADIOLA, Andrés (Coord.) Ed. Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia y Dykinson, Bilbao, 2016.

*Manual Práctico de Derecho Civil Vasco*, FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, Jesús-Javier, Ed. Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Bilbao, 2014.

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Antzinako Fondoa eta Euskal Zuzenbide Zibila Ikertzeko Taldeak egin dituen *Jardunaldiak*.

Deustuko Unibertsitatearen Liburutegiaren Fondo Bibliografikoa,  
[www.biblotecadeusto.es](http://www.biblotecadeusto.es).

Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Argitalpenak, [www.forulege.es](http://www.forulege.es).